

Euskaltzaíndian Sartzean Jean
Elissalde Aphez Azkaíndarak
egin duen irakur-aldía

eta

Georges Lacombe Euskaltzain
-jaunak egin zion erantzuna



EDITORIAL VASCA, S. A.
Banco de España, 3
BILBAO
1931

m

A.T.V.
1481



EUSKALTZAINDIAN SARTZEAN JEAN
ELISSALDE APHEZ AZKAINDAÑAK
EGIN DUEN IRAKUR-ALDIA

M-6301
R-2401

Euskaltzaindian Sartzean Jean
Elissalde Apez Azkaindarak
egin duen irakur-aldia

eta

Georges Lacombe Euskaltzain
jaunak egin zion erantzuna



EDITORIAL VASCA, S. A.
Banco de España, 3
BILBAO
1931

Euskaltzaindian Sartzen Jean
Elissalde Apez Azkaindarak
egin duen itakur-aldia

618

Georges Lacombe Euskaltzain
jauzak egin zion estatuzua



Euskaltzaindian Sartzean Jean Elissalde Apez Azka- indarak egin duen irakur-aldia

Jaun agurgarriak :

Bada éran bat, amets bat dela gizonaren bizia. Berehala aithortuko dautzuet behinere ez nitzaiola éran hori erhainetan sartu, zertako érana den ikusteko. Bego holako lanak kant zahar eta berien gain. Eskualdunek ez ditugu behar gabeko buru-haustek maite. Ez, ez dakit amets bat den gizonaren bizia!

Dakitana hau da : zer bada eta ez bada bizia, iguzkiaren azpian gizonik ez dela ametsik egiten ez duenik. Neronek bizpahirur baditut aspaldi eginak : ez daukitzuet salatuko. Bainan bat bada egundaino egin ez nuena eta hura nahi dautzuet salatu : ni egun batez Euskaltzaindian sar nintakeela...

Eta zertako bada ez nuen bertze batek bezen ongi amets hori egin behar? Zertako? Huna egia, zabal-zabala.

Bekin Robert de Flers izena duen frantses idazle aiphatu bat gaizkika arizan zen «Académie Française» delakoan diren jaun jakintsunez eta, naski bertze behin handiagorik éranen ziotelako belduñarekin, gaztigutzat jaun horiek beren arteko hautatu zuten. Nik ez baitut egundaino gaixtakeria handirik éran Euskaltzaindiko jaunez, edo behin zerbeit éran badut

baitakit berehala barkatu zinautazuela, jaunak, ez nuen Euskaltzaindian sartzea igurikatzen ahal...

Gero, laño-lañoiki eta ahalkerik gabe hauxe aithortu nahi dautzuet, bertzalde: nere buruari behatu-eta, nere burua ongi negurtu-eta, ez nion Euskaltzaintzeko nihundik aski gei atxematen.

Ezen, jaunak, ditudan guziak ongi bildu-eta, zer ekartzen eta eskaintzen ahal dautzuet? Xede on batzu eta gaztetasun pixka bat. Guti, beraz. Eta arás guti! Xede onek zerbeit iduri balinbadute, zerda gaztetasuna? Lilurapen bat! Begietako erhautsa!

Beldur gaixo bat badut, bizkitartean, egungo ohore handi hau nik ez diotala bertze deusi zor nere gaztetasunari baizik. Landeñetxe jaun apheza ehun urtheeri buruz abiatua zen eta iduritu zaitzue zahar baten ondotik Euskaltzaindi huntan gazte bat behar zintutela, baitezpada.

Guzien buruan hain zahara othe zen Landeñetxe apheza? Berak ez omen zakien nun sortua zen, are gutiago noiz sortua zen. Beraz nola finka zahara zela?

Dena dela, Landeñetxe aphezak ehun ete berrehun urthe balinbazituen ere, norbeit zen oraino. Norbeit segurki eta halere! Ez ditut haatik hemen haren espantuk eginen. Beharrik othe da? Ez othe zaizko aski espantuka ari obra guziak?

Espantuka guziz hainbertze eta hainbertze urthez halako artharekin Erdaratik Eskuararat itzulirik argitaratu dituen Fedearen Hedameneko liburuak!

Jaunak, behin edo bertze, beharrez edo jostatzeko, Erdara Eskuararat itzuli dutenek eranen dautzute, zeronek jada frogatua ez baduzue, lan gaixtoagorik ez ditakeela. Eskuaraz ezin eranez, *diabolicum est* dautzuet fidatzen latinez. Ezin sinhetsia baita halako

adinean lan hortan zeramala bere denbora Landeñetxe aphezak!...

Horiek hola, Fedearen Hedameneko liburuak irakurturik, norbeitak eñaten balaut ez dela gero bethi eñex-eñexa Landeñetxe aphezaren Eskuara, zenbeit aldiz ez dakiokela aise-aise jañaik hitz beñi eta bertze zer batzuen gatik, jende añunta mintzo den bezala mintzatu nahi izan balu, hobeki baizik etzitakeela, badakizue, jaunak, zer ihardets nezoken? Erdaraz lehenik : Mon ami, la critique est facile, l'art est difficile! Eta gero Eskuaraz : Adixkidea, zuk egizu behin hoinbertze!

Egia hau baita : bere itzal ttiki guzien gatik hainitz egin duela Eskuararen alde Landeñetxe aphezak!

Bai, sor dakiola gure Eskuara eder eta maiteari adixkide hainitz, laguntzale hainitz, hitzez eta obraz aphez xahar biphil eta kartsu hura bezala alde bermatuko zaionik!

Behinik behin, jaunak, Jainkoari esker bere Eskuara oraino hain ongi zaindua duen Azkaingo heñi edeñeko jende guzia lekuko, lekuko eskuin eta ezkeñetik egun hunat bilduak diren jaun Eskualzale jakintsun eta kartsuak, zeruan lekuko Lapeyre eta Hiribañen heñi huntako eskual idazle ezagutuak, eta guzien gainetik etxe huntan ber-berean sortua zen Chourio handia lekuko, begien aintzinen duzuen eta girixtino egin naizen Eliza zahar paregabe hoñen gerizan, nik hau eñan bekar dautzuet: Landeñetxe zenaren xede berekin heldu nitzaitzuela Euskalzaindirat. Harek bezala Eskuararen alde nahi ditut azken phiruraino nere ahal guziak, nere indar guziak higatu! Eta agian, hori ikusirik, Azkainen hañrak sortuko dire bethi Eskuararen maitatzeko, mintzatzeko eta kantazeko...

Jaunak, iduri luke irakur-aldi hau hementxe burura

ditakeela aise. Dembora badoa eta bazterak laster aseko dire. Bizkitartean, Eskuararen amodiak bildu dituenaz geroz hunat jende hauk guziak, hitz labuñez begien aintzinean eman behar diotet Eskuararen alde zerbeiten egiteko molde bat. Etzaiote guzieren gogorazten, hain erexa delarik! *Nil contemnere*, lan ttikienak badu bere balioa. Egundainoko erana da. Eta huna molde hori: behinere ez gaiten etxetik athera paper xuri muthur bat gabe eta bi soseko lapitz batekin baizik. Alabainan ez da den gutieneko dudarik nunnahi zerbeit kausituko dugula, kausi dezakegula bederen, eskuarazko izena ez dakiogunik.

Bada, holako zerbeit ikusten dugularik, jo dezagun lasterka lehen atxo xahararen ganat eta othoizka galde dezogun: Amañto, zer eraten duzu huni? Amañto, zer eraten duzu hori? Eta amañtok eran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurean... eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbeiti. Heri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik!

Oi, Eskualdun guziek hori egin balezate, zoin garbi eta eder egon litaken kanpotik ethori hitzek emeki-emeki ithotzen ari daukuten gure Eskuara maitea!

Hoña duela zenbeit urthe nere adixkide Louis Dassance Uztariztañarekin —artean erateko, ederki egin baitu Euskaltzaindiak urgazletzat hautatzea— noiz-nahi egiten ginuena, ginoazin ihizirat, pilota partida baten ikusterat edo Uztaritzeko eritegiko atxo xahar batekin kalaka-aldi baten egiterat. Eta hori esker orai Eskual-Herian iragaiten eta lakhetuak diren hegaztin eta xorietarik edozoinen eskuarazko izena jakin nahi duenak aski du «Gure Harria» derizan ilabethekaria zabaltzea. Han kausituko du. Eta egi-

aren den bezala érateko, lan hoiek ez dauku bururik hautsarazi ez-eta denborarik galarazi...

Hoia oraino neronek duela bospasei urthe hasia dutan bertze lan bat, Jainkoaren laguntzarekin denbora laburik barnean hiruzpalau ehun landare eta loreen izenak Euskaltzaindiko jauneri, saferako dohain bezala, eskaintzen ahalko baitiozkater...

Hegaztin eta xorien lana baino ikaragarriago othe da landare eto loreena? Nahiz *lilium inter spinas* ératen duen latinak, ez da éran hori behar den baino gehiago fidatu behar. Bertzalde, jada aditu duzuen bezala lan ttikienak balinbadu bere balioa, badu ere bere saria. Landare eta loreen ondotik dabilana ederki jostatzen da! Are gehiago landare eta loreen izenen ondotik dabilana! Hain politak badire! Eta hain bixiak!

Ez dakit hemengo aditzaleetan behinere nihor lan hori lothu den! Bat balinbada, zorionezko gizon bat dela salatu behar dautzuet bertzeeri. Luñean badire gizonak dirua trumilka behar dutenak denboraren iragaiteko. Lore eta landareen ondotik dabilana, so-sik gabe, atseginean ithoko da nahi duenean, aski ditu hortakotz begiak zabaltzea.

Lan ikaragarria, hori? Ez, segurki. Nor-nahiren eskuko lana da-eta! Behin hariaren punta atxemate-arekin, aski du bururaino jañikitzea. Beha bada.

Egun batez landare bat bazela *amodio-belharra* deithua dena nunbeit edo nolazpeit ikasirik, nere baitan egin nuen beraz hañitzeko litakeela muthiko eta nesken landarerik ez balitz Eskual-Heñian eta leño-leño badakizue zer atxeman ditudan?

Muthiko-lorea.

Etxekalaba-belhaña.

Ezkongei-lorea.

Mutxurdin-lorea.
Espos-lorea.
Amatcxi-lorea.
Andere-mahatsa.
Alharguntsa-belhaña.
Atso-herioa.

Behin *ardi-mihi* bat bide hegian kausiturik, urhats bat ez baita egiten ahal nihun ardi mihirik kausitu gabe, berehala bertze gisa hortako izenik ba othe zen abiatu nintzen beraz. Eta leño-leño huna zer izen dutan jada atxemanik.

Bildots-mihia.
Idi-mihia.
Idi-bihotza.
Ahuntz-adana.
Huntz-hostoa.
Xori-gerezia.
Phika-bada.
Zaldi-bada.
Mando-bilhoa.
Azeri-buztana.
Otso-baba.

Bertzalde ainhara, apho, arkamelu, kuku, oilo, otso eta kukuse-belhar guziak. Bertzalde oraino lumaren puntarat ethoñi etzaizkidan bertze hainbertze zakhur-purga eta gainerateko.

Bada lore eder bat *Jesu-Krichtoren lorea* deitzen dena—artean eñateko izen hau, bertze franko bezala, egun bihotzaren erditik milesker eñaten diotan eta loreen izenetan aski trebe den Azkaindar adixkide batek emana baitut—bixtan da badirela beraz *Ama Birjinaren loreak*. Eta zenbat Ama-Birjinaren lore!

Ama Birjinaren axtapaña.

Ama Birjinaren eskularua.

Ama Birjinaren athoña.

Ama Birjinarekin éran gabe doa *San Josepek* baiduela bere lorea, bai-eta *Jondoni Joanik*. *San Martinek* ere ba. *Aingeru belhhaña* nun-nai bada. Eta lotsa ez baintz zeruko gure Ama on eta Saindu handieri hoin hurbil emateko, hemen izenda nezazketzue *bañabas-belhhaña*, *zuhain-mandarikatua* eta *debru-zuro*.

Behin *belhar-beltza* atxemanenez geroztik, berehala atxemanak dire :

Hosto-beltza.

Aien xuria.

Hosto xuria.

Belhar-mina.

Belhar-latza.

Belhar-xuta.

Aphez-koroa (*achillea millefolium*) bezalako izen bitxi bat atxeman-eta aski da izen bitxien ondotik abiatzea eta huna zer atxemanen den, gutienetik :

Añosorio-belhhaña—Hildopizaña.

Gasna-belhhaña —Ezker-aiena.

Phikozoroa. —Aztapaña.

Urde-muthuña —Zuhaitz bizar zuria.

Añastelu-zaina —Zain-belhhaña.

Sorgin-orazea —Sorgin belhhaña.

Bainan geldi gaiten huntan. Alde batetik paper muthuñetan ditudan izen guziak eman behar banitu, guziz beren erdarazko eta latinezko izenezkin, eta bakoitzaz dagokion zerbeit éranenez, ez litake ixiltzerik. Eta bertetik, ez othe dut hola-hola aski frogatu ederki josta ditakeela Eskuararen alde lanean ari dena? Bai, egia

da lan ttikienak baduela, bere balioa bezen segur, bere saria.

Euskaltzaindiko jaun agurgariak,

Bizpahirur urthez jada aiphatu L. Dassance Uztariztar adixkidearekin hegaztin eta xorien izenen bilha ibili-eta, gero neronek bospasei urthez hiruzpau ehun—gehiago ez bada—landare eta loreen izen bildu ondoan, nere baitan sartzen naizelarik badakizue zer iduritzen zaitan? Huna. Eta hau ditake irakuraldi hunen hirurgaen zathia. Zathi laburra haatik!

Egundaino Eskualdunek begietan izatu dituzten eta eskuetan ibili dituztenetan, deus guti gelditu ditake Eskualdunek izenik eman gaba. Ondikotz, gure aintzinekoek, bereziki azken berogoita hamar urthe hanttan, hainitz izen galtzerat utzi daukute. Guri dago, oraino mendi zokhoetan bizi zaizkigun aitaxo-amaxoen aho mihietan edo liburu zaharretan izen horiek beritz bildurik, Eskual-Heñi guzian egundaino bezala zabal-tzea. Eta gero izen bat nihundik gehiago ez badezakegu eskura, zertako ez ginuke lehen Eskualdunek egin dutena eginen? Izen berri bat asma eta heda! Badakit ez dela hori nola-nahi egiteko lana. Bai ordean, artharekin eta emeki-emeki egin ditakeena. Zoin da egungo egunean Eskualduna, beribila zer den ez dakiena? Idazlea zer den ez dakiena? Gibel-asmua zer den? Zer den ximist-oratza? Bizkitartean horra lau izen berri! Eta ongi bilhatzearekin ez othe litake bertze zenbeit ere kausi? Ez da dudarik. Izen berri guziek berehala eroak hartuko dituzte Eskual-Heñian, ongi hautatuak balinbadire. Hortan da guzia.

Euskaltzaindiko jaun agurgariak, nihork ez dezake zuek bezen ongi egin lan hori. Denbora galtzea litake zeronen gogoen asetzeko liburu ederrenen ikhertzea eta ikastea, hortarik gibelondo zerbeit ez balu behar

Eskuarak, egunetik egunerat bere eremuetarik zathi bat gehiago Erdarari utzi behar balio!

Jaunak, denborarik ez duzue debaldetan galduko. Eskuara zainduko duzue lehenik. Behar-bada, aberastuko duzue gero. Eta hori egin duzuelakotz, hemendik ehun urthe gabe Eskual-Heñiko hameka etxe-aintzinetan—neroni ikasterat heldu bainaiz zuen arterat eta sekulan deus ez baituket beraz merezi!—beritz ere diot, Eskual-Heñiko hameka etxeaintzinetan Eskualdunek hari bana lantuko dautzute hitz haukiekin: Eskuara hiltzerat utzi ez duteneri Eskualdunek milesker! Nik ez dut bertze eratekorik.

Azkainen, 1930 gañen Hazilaren 27'an.

Jean Elissalde aphez jaunak bere eus-
kaltzainsaerari irakurri zuen Itzaldiari
Georges Lacombe Euskaltzain
Jaunak egin zion erantzuna

Jama,

**JEAN ELISSALDE APHEZ JAUNAK BERE EUS-
KALTZAINSAERAN IRAKURRI ZUEN ITZALDIARI
GEORGES LACOMBE EUSKALTZAIN JAUNAK
EGIN ZION ERANTZUNA**

Dago bizirik gaur...
Lacombe jaunak...
Euskaltzain Jaunak...
Itzaldiari irakurri...
Georges Lacombe...

JEAN ELISSALDE APHEZ JAUNAK BERE EUS-
KALTAINSARBERAN IRAKURRI ZUEN ITZAI DIAISI
GEORGES JACOMBE EUSKALTAZAIN JAUNAK
EGIN ZION ERANTZUNA

Jean Elissalde aphez jaunak bere euskaltzainsaieran irakurri zuen itzaldiari,

Georges Lacombe Euskaltzain
jaunak egin zion erantzuna

Jauna,

Zure irakur-aldiaren hastean mintzatu zare Robert de Flers jaun zenaz: bere lankide Gaston de Caillavet-ekin orai duela hemezortzi urte egin zuen *L'Habit Vert* deithu obra ederean Frantziako izkelzaindi edo Akademiak irufatzen da. Izelzain hautarazten dio Latour-Latour derizan gizon bat, deus eztena, baina zerbait bilhakatu nahia Akademian sarhuz geroztikan; eta bere saierako itzaldian solas irigarri batzu eran-arazten diozkate idazleek. Halarikan, laster izkelzain izendatua izan zen de Flers. Zuk etzinuen gutaz tzarkeria handirik eran: nahi zinuen kasik Eskualari guziak Euskalzaindian sar leiten. Orai ikusten duzu hori ezin litakeyela. Hamabi gare, eta urgazle hainitz baditugu. Bakhotxak bere lana ongi egiten badu, zerbait, ene ustez, eskuararen alde jalgiko da.

Bere bizitze guzia eskuarari eman zioen zure ainzinekoa Landereche aphezak. Añas guti dire, Frantziako eskualkiak harek zikizkien bezala jakin izan dutenak, bai ta re añas guti, Eskualdun idazleen artean, hainbertze eman dutenak. Eran duzu nola urte

askoz itzuli zituen eskuaralat Fedearen hedameneko liburuak. Lauetan hogoi eta hamazazpi urtetan argitaratzen zuen bi hilabethetarik itzulker hori, eta nihoiz etzen nekatua, nihoiz eztu nahi izan utzi lan handi hori. Eta zerbait baliosik ere bazuen: eskuarazko hitz zahar hainitz, galtzera doazinak, laster hilak izanen direnak, bere buruan bazaduzkan, eta hala hitztegiak ikerturik nasaiki emendatu zituen. Atsotitz, eran zahar, khantu, metaka baziakizkien. Eta ezin ahantz dezakegu zer egin duen hogoi urthez eta gehiago Eskualzaleen biltzararearen alde. Segur naiz bilkhura hortan izan diren eta direnetan ez laitekela aurkhi bederen gizon bat, Landeñetxek egin lanaren erdia egin duenik. Gure artean ere khartsu zen: Bilbon, Donostian, Iruñan ginuen lankide eta ahal bezambat erne zagon gure batzaraldietan. Izkinde edo gramatika txiki bat bururatu zuen: galdegin nion maiz imprimieraz dezan, bainan, zahartzean, etzioen eman lan hori khasu handirik.

Haren orde, Jauna, hautatua bazare, nahi izan du Euskaltzaindiak Lapurdiko seme egiazko bat hartu. Azkainen sortu zare. Aita Azkaindaña, Ama Azkaindaña. Nekez hatzeman ginezake norbait, zu baino Azkaindañago laitakenik. Nahiz bizitzearen harat-hunatek heritik-kanpora eraman zaituzten, bethi sort-heñira ahal bezain ardura zatoz, eta Azkaini duzun atxikimendua neurthitzetan ezari duzu. Huna nola:

Azkaingo heñian dut nik nere etxea,

Xoko polit batean umilki gordea.

Efege urus bada bere jauregian

Ez naiz ufikaltzeko etxeño ikian.

Goizean jeikitzen naiz bihotza goxorik,

Ohean argiraino ongi loz aserik.

Xoriak ari dire kantuz oihanean:

Ni, efege bezala, musika aldean!

Eguna laster doa nahirat jostetan

Afainketa, ihizin, ez bada pilotan.

Ilhundu-eta ez dut deusen urrikirik :

Efegeirik othe da urusago denik!

Zeru gainean baita denen Efegea,

Goiz-arrats lakhet diot othoitz egitea :

«Jauna, ez dut ga' detzen lurrean tronurik :

«Bat hartuko dut, bainan... hil-eta bakharrik!»

Zure sort-heñi hain maitea utzi behañez, Lañesoron lehenik, gero Baionan egon zare ikhastetxe batzutan. Eta aphezturik, igorri zaituzte bikario Uztaritzera. Han bizpahirur eñetor-nausi izan ditutzu buruzagi : enagoke heietarik bat aiphatu gabe : minzo naiz Michel Iriart adixkide hain on, hain goxoaz, hogoita hamar urthez ezagutu dudana. Adimenduzko gizona eta zintzoa! Eta eskuara nola zabilan! *Eskualduna* kazetan Ebanjelioa adiratzen zuenean, bazena irakurle bat uste zuenak bertze batek Iriartek baino hobeki eskuaratik hitzaldi hain ederik athera litzazkenik?

Uztaritzetik, jauna, juan zare, eñetor bilhakaturik, Xuberoko heñi batetara, Liginaga deitzen dena. Heñi hañtan Xuberoko eskuaran bizirik ere, bethi zure sort-heñiko eskuaran idazten duzu. Ezen eskualdun idazle bat zare, eta maiz luma eskuan hartzen duzu. Egia da, Eskual-herriko aphez guziak Eskualzale direla. Bainan heyetarik gehienek uste dute beren predikuak eskuaraz eginez, kofesatuz eskuaraz eta katixima erakatsiz eskuaraz, noizean behin eskuarazko kantika batzu elizan khanta-arazirik, aski egin dutela beren arbasoen mintzaiaren alde, eta hola eskuara bethi aitzina joanik biziko dela menderen mendetan, bethiraundean. Guti dire, zu bezala, bihotz eta gogo barnetik senditu dutenak horiek oro ez direla aski eskuararen iraupeneko. Eskualdun laborariak eta langile guziak, beren mintzayaren merexi duen

bezala maithatzeko, behar dute gaineratekoan irakurtu eta ahal balimbada idatzi eskuaraz, eta eskuara baratzte bat bezala laboratu eta moldatu. Hala eskuararen balioa hobeki ikhusiko dute, eta atseginekin nola eginbidez beren haurreri erakatsiko diote Europako izkuntzetarik zaharrena. Zu zare hori endelgatu dutenen bat, eta hartako laket zauzu eskuaraz idaztea. Orai duela hamar urte, eman daukuzu liburuño bat, «Kantari berria» deitua, eta irakurtu dut han harturikako lauzpabortz koplak. Zuri ere zor zaitugu gai asko han edo hemen agertuak, *Eskualdunean, Gure Herrian, Euzkadin*, almanaka edo egutegietan: artikulu heyetan bakhan zure deithura ezartzen duzu: bainan Zerbitzari zu zaitugula badakigu, eta Lurtchuri, Bilharia, Haizbelar, denak Elissalde jaun erretora direla. Zure ipuin ederrak laket zaizkigu, hala nola *Bakhotxak bere aldi, Harixabaleko hil herietan, Harixabalen bezala bethi, Mariluz, Ondikola eta Lutxoki, Ganix Artzaina, Eran zahar bat, Juan Soldado, Mixeria, Pilotari xahara, Bixintxoren predikua, Zora ordaindua* eta abar. Pilotari handieneri ere artikulu zunbait egin diotezu, nola Urchalleri, Embil Victor eta Enriqueri, eta Bautista Baztandarra, Cantabria, Errezabal, Piztia, Porteño, Perkain, Azantza, Mattiu, Chilhar, Larralde, Soudre, Dongaitz eta Harambillet nola izan diren jokolari gaitzak kondatu daukuzu. Eta pilota ezduzu maite urunetik, bainan zuhaur zare pilotari. *Mens sana in corpore sano* zer den badakizu. Eta ezdezaket ere ahantz gerla demboran zeri lothua zinauden. Han zinen, etsaiaren aintzinean, eta zure eginbide osoa ezinago hobeki eginez laur goraphamen izatu zinituen.

Jauna, mintzatu zatzaikigu adixkide baten laguntzarekin egin duzun liburuaz, Eskual-herriko hegazti-

nak eta xoriak deituaz. Holako agerkaien behaña dute eskualariek. Ene ustez, ongi litake bi liburu-suerte ager ditezen. Lekenik, eskualdun idazle zaharrenak ez dire aski ezagutuak: berriz argitaraz dezaten, bederen egokienak. Bigarrenekorik, oraiko sei ehun Eskualdun herrietako eskuara osoki iker dezaten. Badakit bi lan horiek hasiak direla, bainan hasiak baizen. Oraiko jakinsunek badakite nola lanean ar, bainan lagunduak ez badira, deus onik ezdezakete has. Landareen izenak biltzen hasia zare eta hitz-emaiten daukuzu laster bururatuko duzula liburu hori. Guzien izenean, eskerrik hainitz, orai danik. Argitaratu duzunaz geroz liburuko polit bat, eskuara garbi-garbira frantsesetik bihurtua, *Ama Maria Pasionekoa* deithua eta orok atseginekin irakurtuko dutena, astirik aski baduzu zure hitzaren laster idukitzeko. Egia eraiteko, jadanik ikhertzaile asko lan hori lothu zaizkote. Baditugu zuhaitz arnari (edo fruitu), landare eta lore izenik metaka. Gauza ezagutua da mila zortzi ehun eta laueta hogoi eta zortzian Iruñan Lacoizqueta jaun aphezak eman duela *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas* derizan balio handitako liburu bat: han hatzemaiten dugu kasik bederatzi ehun landare izen beren latineko, frantseseko eta espāñoleko eranerarekin: gero agertu da *Ciberouko botanica edo lantharen jakitaitia*, Urdirānbeko erretor batek, *Althabe jaunak emana*. Bertze batzu, nola Azkue, Larreko, Aranzadi jaunak sail berean ibili dire. Eta zure lana agertu ondoan, nahi nuke eskualari batek, latina, frantsesa, espāñola, kaskoina eta aragonesa ongi liakizkenak, har litzan eskuarazko landareen izenak oro eta erran lezan zein diren egiazko eskuarazkoak eta zein arōtzetik etorriak. Ez liteke erex holako lana. Badakizu, eta hořen

ezgare ahalge izan behar, azken mende hautan Eskualdunak beren gogoak eta eginkarak aldatu izan dutela bietan: lehenik, Erromanoeri buruz gertatu izan direnean, bigarrenekorik giristinotu ondoren. Erromanoak huneraino jin aitzinean, etzakiten gauza handirik Eskualdunek: puska bat basa zirela eranez, ez diot adimendu fikiko zirela. Ez segurki, bainan araza edo enda zahar-zahar baten ondokoak zirela. Eta edozeinek daki, lur huntako gizonik zaharrenek guti zakitela eta bizia txarra zutela. Beraz, Erromanoek Eskualduneri hainitz gauza erakatsi ziozkaten. Ezin ukhatzekoa da, hartaz minzo naizelarik, landare zumbait latinetik hartuak ditugula, hala nola *gerezia* (latin *cereseam*), *godeiña* (latin *cotoneum*), *gaztaña* (latin *castaneam*), *mirtxika* (latin *persicam*), *mizpira* (latin *mespilum*), *biku* (latin *ficum*). Eta fruitu batzu ere latinezkoak dire: *tipula* (latin *cepullam*), *mihuli* (latin *fenuculum*), *meilu* (latin *milium*), *bleta* (latin *bletam*, *betulam*), *baba* (latin *fabam*), *pastanaga* (latin *pastinacam*), *biper* (latin *piperem*), *kurkubita* (latin *cucurbitam*), *kumin* (latin *cyminum*), *txindil* (latin *lenticulam*), *izpika* (latin *spicam*), *gureto* (latin *boletum*), *siape* (latin *sinapem*), *menda* (latin *menta*), *arraga* (latin *fraga*). Eta giristino bilhakatu zirenean Eskualdunak, hitz andana handi bat eskuaran sartu zen beriz, eta erlijioea denetan ezarria izan zen. Irakurtu ditutzun landare izenetan, nahiz guti aipatu duzun, hautematen dut Ama Birjinaren, San Josepen, Joanen Joanen, San Martinen eta Aingeruen lore batzu. Egiazko landare iztegi taño bat izanen dugunean, kidekatzen ahalko ditugu hitz horiek oro, eta ikusten ahalko Charenceyk eta Vinsonek Eskualdun zaharretaz erran dutenetan zer behar den hartu, eta zer utzi.

Jauna, galde bertze bat egin nahia nagozu, eta galde hori ihardesten ez badiozu, igurikitzen dut bertze batek onetsia izanen dela. Oraiko jakintsunek izkelki (edo dialektoak) maite dute. Eskual-heñikoak eragutuak dire, baina ez aski oraino. Ongi litake Azkaingo eskuara hobeki ezagutua dadin. Egia da, Luis-Luciano Bonaparte printzeak hunat (1) ethorí zela bi aldiz, otsailaren bian, mila zortzi ehun hiruetan hogoi eta seian, eta gero epailaren seian, mila zortzi ehun hiruretan hogoi eta zazpian, ikhusi dudana bezala printziaren guthunetan, baina guti zen hemen gelditu: berogoi ta hamar hitz edo aditzki alxatu zituen, eta Azkaingo eskuara kostakoa bezalatsu zelakoan jua zen. Azkue jaunak, gero, bere itztegian Azkaingo zerbait ezañi du. Holako lanak beriz hasi behar da, eta zuk dakikezu.

Lan hoñen eta bertze hainitzen azkentzeko gauza bat baitezpadakoa da, eskualzale eta eskualari guziak bat egin dezaten, eta bakhotxak bere egin ahalaz, bere indar guziez eskuarari zerbait eman dezon. Bertzenaz, eskuararen etsaiek nahi dutena gerthatuko da: laster ez da izanen Eskualdunik. Erdara baizik ez dakien Eskualdun bat, zer da? Bere burua hil duen gizon bat. Eskualtzaindiak eta bertze Eskualzaleen bilkhurak oro bere eginbidea osoki egiten badute, holako zorigaitza ez da sekulan gertatuko.

(1) Azkalnerat.

